

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA ORTUELLAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, « BI-3791 ERREPIDEA EGOKITZEA» LANAK EGITEKO, ETA HONAKO HONEN TITULARTASUNA LAGATZEKO: BI-3791 FORU ERREPIDEAREN 15+1070 K.P.TIK 17+000 K.P.RAINOKO, TARTEA.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL AYUNTAMIENTO DE ORTUELLA PARA LA EJECUCIÓN DE LOS TRABAJOS DE “ADECUACIÓN DE LA CARRETERA BI-3791” Y LA CESIÓN DE TITULARIDAD DE LA CARRETERA FORAL BI-3791 DEL P.K. 15+1070 AL P.K 17+000,

Bilbon, 2023ko

(e)(a)n.

En Bilbao, a

de 2023

## PARTE-HARTZAILEAK REUNIDOS

ALDE BATETIK, **IMANOL PRADALES GIL jauna**, Bizkaiko Foru Aldundi Txit Goreneko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru diputatua. BFA P4800000D IFKrekin

DE UNA PARTE, **D. IMANOL PRADALES GIL**, Diputado Foral del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Excma. Diputación Foral de Bizkaia con CIF P4800000D

BESTE BATETIK, **SAULO NEBRED A TREVEJO, jauna**, Ortuellako Udaleko alkate -udalburua (Bizkaia). Ortuellako udala P4809600B IFKrekin

DE OTRA, **D. SAULO NEBRED A TREVEJO**, alcalde presidente del Ayuntamiento de Ortuella (Bizkaia) con CIF P4809600B.

## ESKU HARTU DUTE INTERVIENEN

Lehenengoak, Bizkaiko Foru Txit Goreneko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru diputatua den aldetik eta haren ordezkari gisa.

El primero en su calidad de diputado foral titular del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Excma. Diputación Foral de Bizkaia, y en representación de la misma.

Bigarrenak, Ortuellako -udalburua den aldetik, Udalaren legezko ordezkari gisa.

El segundo como Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Ortuella, en representación legal del mismo.

Parte-hartzaile biek LANKIDETZA-HITZARMEN hau sinatzeko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri.

Ambos intervinientes se reconocen capacidad legal suficiente para otorgar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto

## AURREKARIAK

I.- Euskal Autonomia Estatutuko 10.34 artikuluan, Autonomia Erkidegoko Instituzio Komunen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 2/83 Legeko 8. puntuko 7 a) artikuluan eta aipatutako Legearen garapenean emandako martxoaren 5eko 17/85 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Organoek errepide eta bideen planifikazio, proiektu, eraikuntza, kontserbazio, aldaketa, finantziario, erabilera eta ustiapenerako eskumen eskusiboa dute.

II.- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 d) artikuluan arabera, udalerrien bere eskumenen esparruaren barruan hauxe dago: bide-azpiegitura eta bere titulartasuneko beste ekipamendu batzuk. Horren harira, 26. artikulua dio udalerriz guztiek, besteak beste, herri barruko bideen zoladuraren zerbitzua bete beharko dute. Era berean xedatzen du Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 legearen 17.1.16)

III.- Bai Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailak bai Ortuellako Udalak beharrezkotzat jotzen dute era honetan identifikatzen diren obra hauek egitea: "BI-3791 ERREPIDEA EGOKITZEA"

Lan horiek gauzatuz tartearen bide-segurtasuna hobetu nahi da; horretarako, izaera urbanoagoa emango zaio tarteari eta orobat osatuko dira oinezko ibilbideak

IV.- Ildo honetatik, agiri honetan ezarritakoak badu beste helburu bat ere, BI-3791 foru errepidearen 15+1070 p.k.tik 17+000 p.k.rako tartearen titulartasuna aldatzea eta Ortuellako Udalari ematea, elkar hartuta, Bizkaiko Errepideei buruzko urriaren 5/2021 Foru Arauko 56. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, espedienteak bukatzeko.

Horretarako, aldi berean, eta Ortuellako Udalak eskaturik, lagapen bidezko titulartasun aldaketari buruzko foru dekretuaren onspena tramitatu da; bertan aldaketa horren funtzionaltasuna egiaztatzen

## EXPONEN

I.- En virtud de lo dispuesto en el artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, artículo 7 a) punto 8 de la Ley 2/83, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos y en el Decreto Foral de 17/85, de 5 de marzo, dictado en desarrollo de la citada Ley, los Órganos Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, tienen la competencia exclusiva en la planificación, proyecto, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de carreteras y caminos.

II.- El artículo 25.2 d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local determina entre las competencias propias de los municipios la de infraestructura viaria y otros equipamientos de su titularidad. Por su parte, el artículo 26 señala que todos los Municipios deberán prestar, entre otros, los servicios de pavimentación de las vías públicas. En similares términos lo establece el artículo 17.1.16) de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

III.- Que tanto el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia como el Ayuntamiento de Ortuella consideran necesaria la ejecución de los trabajos que consisten y se identifican como sigue: "ADECUACIÓN DE LA CARRETERA BI-3791 "

Que la ejecución de dichos trabajos tiene por objeto la mejora de la seguridad vial del tramo dotándolo de un carácter más urbano, completando también los itinerarios peatonales.

IV.- En este sentido las previsiones contenidas en el presente documento se establecen igualmente en orden a convenir el cambio de titularidad y la entrega de mutuo acuerdo de la carretera foral BI-3791 del p.k. 15+1070 al p.k. 17+000 al Ayuntamiento de Ortuella, en base a lo dispuesto en el art. 56 de la Norma Foral 5/2021, de 20 de octubre, de Carreteras de Bizkaia, a fin de concluir el correspondiente expediente.

A tal efecto se encuentra en tramitación paralela, previa petición del Ayuntamiento de Ortuella, la aprobación del oportuno Decreto Foral sobre cambio de titularidad por cesión en el que se

da. Aldaketa foru dekretu hori betearaziz formalizatuko da bi alderdiek emate-akta sinatuta hitzarmen hau sinatzen den egintza berean.

**V.-** Hori dela eta, bi Administrazioen interesak bakoitzaren eskumenen ikuspegitik koordinatzeko, lankidetzaren eta eraginkortasunik eta ekonomiarik handienaren irizpideei jaramon eginik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 legearen 48. artikulua, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua, haiekin bat datozen gainerako manuek eta aplikatu beharreko arauak herri administrazioei ematen dizkieten ahalmenak erabiliz, bi alderdiek honako LANKIDETZA-HITZARMEN hau formalizatzen dute, 40/2015 Legearen 47.2 "a" artikulua arabera eta ondoko klausula hauen arabera:

#### KLAUSULAK

##### HITZARMENAREN XEDEA ETA SUBJEKTU BAKOITZAK EGIN BEHARREKO JARDUKETAK

Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren eta Ortuellako Udalaren arteko lankidetzak da honako hitzarmen honen xedea "BI-3791 ERREPIDEA EGOKITZEA" da eta obra horiek hitzarmen honetan I. eranskin gisa txertatzen den aurreproiektua laburtzeko memorian identifikatuta daude.

Dokumentu honetan definitutako administrazioen arteko lankidetzak eta elkarlana terminoen arabera dokumentu honen xedea ere bada BI-3791 foru errepidearen 15+1070 p.k.tik 17+000 k.p.rainoko tartearen titulartasuna aldatzea, bi alderdiek hala adostuta.

##### Ortuellako Udala

1.-Ortuellako Udalak BI-3791 foru errepidearen 15+1070 p.k.tik 17+000 k.p.prako tartearen titulartasuna eskuratuko du.

2.- Udalaren ardura da obrak udalak berak egitea.

3.- Halaber, Ortuellako udalaren eskumenekoak izango dira aurreko paragrafoan aipatu diren obra horiek burutzeko soldaten kudeaketa.

acredita la funcionalidad de dichos cambios, el cual se formalizará en ejecución del Decreto Foral mediante la suscripción del acta de entrega por ambas partes en el mismo acto de firma del presente Convenio.

**V.-** Que, a tal efecto, con el fin de coordinar los intereses de ambas Administraciones desde el punto de vista de sus respectivas competencias atendiendo a los criterios de cooperación y máxima eficacia y economía, y haciendo uso de las facultades que para las Administraciones Públicas resultan del artículo 48 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y del artículo 57 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local y demás preceptos concordantes y normativa aplicable, ambas partes proceden a formalizar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, de acuerdo al artículo 47.2 de la Ley 40/2015, "a" con arreglo a las siguientes:

#### CLÁUSULAS

##### 1.- OBJETO DEL CONVENIO Y ACTUACIONES A REALIZAR POR CADA SUJETO

Es objeto del presente Convenio la colaboración entre el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Ortuella en orden a la ejecución de las obras de "ADECUACIÓN DE LA CARRETERA BI-3791" e identificadas en la memoria resumen del anteproyecto que se adjunta al presente convenio como Anexo I.

En los términos de colaboración y cooperación interadministrativa definidos en el presente documento, forma igualmente parte de su objeto convenir el cambio de titularidad y entrega de mutuo acuerdo de la carretera foral BI-3791 del p.k. 15+1070 al p.k. 17+000

##### Ayuntamiento de Ortuella

1.- El Ayuntamiento de Ortuella adquirirá la titularidad de la carretera foral BI-3791 del p.k. 15+1070 al p.k. 17+000

2.- Constituye obligación del Ayuntamiento la ejecución de las obras.

3.- Igualmente será competencia del Ayuntamiento de Ortuella la gestión de los suelos necesarios para la ejecución de las obras referidas en el apartado anterior.

4.- Zerbitzu ukituen kudeaketa, nola errepideari lotuta dauden elementuak, udalaren eskumenekoak izango dira eta berak mantendu beharko ditu.

5.- Ortuellako Udalaren betebeharra da aurreko puntuetan identifikaturiko obrak kontratatu, zuzendu eta burutzea, harik eta obrak egiteko kontratuak likidatu arte, eta berari dagokio, halaber, beharrezkoak diren kontratazio espediente guztiak izapidetzeko ardura.

Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmen honen bidez bere buruari ezartzen dion ekarpenaz landa, Ortuellako Udalak ordainduko du aipaturiko obraren zuzendaritza eta burutzapena, obra likidatu arte. Horretarako, aipaturiko konpromiso ekonomikoek oso-osorik aurre egiteko aurrekontu kreditu egoki eta nahikoak onartu beharko ditu Ortuellako Udalak bere aurrekontuen pentzuan.

### **Bizkaiko Foru Aldundia**

1.- Hitzarmen honetan ezarritakoari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak hitzarmen honetako izenburuan adierazitako, obrak egiteko beharrezko foru lurrak ematea bereganatu du.

2.- Bizkaiko Foru Aldundiak proiektua eta hitzarmen honen objektuan apaitatuko obrak berrikusiko ditu.

3.- Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio hitzarmenaren xede diren obrak finantzatzea.

### **ALDERDIEK BEREN GAIN HARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK**

1.- Hitzarmen honetan ezarritakoari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak konpromisoa hartzen du gehien-gehienez ere **BERREHUN ETA HAMAZAZPI MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI EURO ETA LAUROGEI TA BEDERATZI ZENTIMOKO** (217.568,89 €) ekarpena egiteko, 2023ko aurrekontu ekitaldiaren kontura. Zenbateko horrek ez du baimendu den aurrekontuko kreditua gaindituko.

Aurreko paragrafoen ondoriozko konpromiso ekonomikoari aurre egiteko, onarturik daude, hitzarmen hau sinatu baino lehen egon ere,

4.- La gestión de los servicios afectados, así como los elementos anexos a la carretera serán de competencia y mantenimiento municipal

5.- Constituye obligación del Ayuntamiento de Ortuella, contratar, dirigir y ejecutar las obras identificadas en los apartados precedentes hasta la liquidación de los correspondientes contratos, debiendo tramitar a tal efecto los expedientes de contratación que resultaren necesarios.

La dirección y ejecución de dichas obras hasta su liquidación será sufragada por el Ayuntamiento de Ortuella, en todo lo que exceda de la aportación que la Diputación Foral de Bizkaia se obliga a realizar en virtud del presente Convenio. A tal fin, el Ayuntamiento de Ortuella deberá aprobar con cargo exclusivo a su presupuesto los créditos presupuestarios adecuados y suficientes para hacer frente íntegramente a dichos compromisos económicos.

### **Diputación Foral de Bizkaia**

1.- A los efectos establecidos en el presente convenio el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia se compromete a la aportación de los suelos forales necesarios para la ejecución de las obras.

2.- La Diputación Foral de Bizkaia revisará el proyecto y las obras objeto del presente convenio.

3.- Corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia la financiación de la obras objeto del Convenio.

### **2.- OBLIGACIONES Y COMPROMISOS ECONÓMICOS ASUMIDOS POR LAS PARTES**

1.- A los efectos establecidos en el presente Convenio, el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia se compromete a aportar con cargo al ejercicio presupuestario 2023 la cantidad máxima e irrebutable **DOSCIENTOS DIECISIETE MIL QUINIENTOS SESENTA Y OCHO EUROS CON OCHENTA Y NUEVE CENTIMOS** (217.568,89 €), importe que no superará el crédito presupuestario autorizado.

En orden a hacer frente al compromiso económico derivado de los párrafos precedentes, están aprobados con anterioridad a la suscripción del

aurrekontu kreditu egoki eta nahikoak, eta eginik dago 2023ko ekitaldiko aurrekontuko diru-izendapena, honako aurrekontu-partida honen kontura: 73299 Ekonomikoa, 453116 programa, 1002 zentro kudeatzailea, PEP 2007/0742. Horra egozten da honako hitzarmen honetan ezarri den ekarpena.

2.- Arestion aipatu den lehenengo idatz-zatian ezarri den zenbatekoa hilabete bateko epean ordaindu beharko da, honako hitzarmen hau sinatzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

3.- Bizkaiko Foru Aldundiak egin beharreko diru-ekarpena II. eranskin gisa jasotzen den aurrekontuan zehazten da.

#### **ALDERDIEK BEREN GAIN HARTUTAKO BETEBEHAR ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK**

Aurreko puntuetan ezarritako betebeharrak ez betetzeak hitzarmenaren suntsiarazpena ekarriko du, zortzigarren klausulan aurreikusitako ondorioekin ekarri ere. Horrez gain, bidezkoak diren erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio udalari.

#### **4. JARRAIPEN, ZAINZA ETA KONTROLERAKO MEKANISMOAK, HITZARMENAREN BETEARAZPENARI ETA HARTUTAKO KONPROMISOEI APLIKATZEKOAK**

1.- Obraren zuzendaritza Ortuellako Udalari dagokio betiere, baina, hala ere, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak, bere teknikarien bitartez, edozein kasu eta unetan ikuskatu ahal izango du obraren burutzapena, eta horretarako beharrezkotzat hartzen dituen azalpen eta agiri guztiak eskatu ahal izango dizkio udalari, bere teknikariei eta udalak obra zuzendu eta burutzeko sinatzen dituen kontratu guztien adjudikaziodunei.

2.- Halaber, obra burutzeko egiten diren izapide guztien garapen eta burutzapenaren berri eman beharko dio Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari, batez ere obraren adjudikazioari, hasierari, ziurtagiri guztien kopia baten bidalketari, amaierari, obra-jasoketa edo harrerari eta likidazioari dagokienez.

3.- Era berean, obrak egitearen ondorioz hirugarrenei, Bizkaiko Foru Aldundiari edo udalari

presente documento, los créditos presupuestarios adecuados y suficientes, existiendo consignación presupuestaria en el ejercicio 2023 con cargo a la siguiente Partida Presupuestaria: Económico 73299, Programa 453116 Centro Gestor 1002, PEP 2007/0742, a la que se imputará la aportación prevista en el presente convenio.

2.- El abono de la cantidad establecida en el apartado número uno precedente se efectuará en el plazo máximo de un mes desde la firma del presente convenio.

3.- La cuantificación de las cantidades a aportar por la Diputación Foral de Bizkaia se determina en el presupuesto que se adjunta como Anexo II.

#### **3.- CONSECUENCIAS POR INCUMPLIMIENTOS DE LAS OBLIGACIONES Y COMPROMISOS ASUMIDAS POR LAS PARTES**

El incumplimiento de las obligaciones establecidas en los apartados precedentes dará lugar a la resolución del presente Convenio con los efectos previstos en su cláusula octava, sin perjuicio en todo caso de la exigencia de las responsabilidades al Ayuntamiento a que hubiera lugar.

#### **4.- MECANISMOS DE SEGUIMIENTO, VIGILANCIA Y CONTROL DE EJECUCIÓN DEL CONVENIO Y DE LOS COMPROMISOS ADQUIRIDOS**

1.- Sin perjuicio de que la Dirección de la Obra corresponda en todo caso al Ayuntamiento de Ortuella, el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial a través de sus técnicos, podrá supervisar en todo caso y momento la ejecución de la misma, pudiendo solicitar a tal efecto, cuantas explicaciones y documentación estime precisa del Ayuntamiento, de sus técnicos, y de los adjudicatarios de todos los contratos firmados por dicho Ayuntamiento para la dirección y ejecución de la obra.

2.- Del mismo modo deberá comunicar al Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial el desarrollo y ejecución de los trámites que se realicen en ejecución de la obra, especialmente de la adjudicación, inicio, remisión de una copia de todas las certificaciones, finalización, recepción y liquidación de la obra.

3.- Asimismo será responsabilidad exclusiva del Ayuntamiento de Ortuella hacer frente a cualquier

berari kalte eta/edo galerarik eraginez gero, Ortuellako Udalaren erantzukizun eksklusiboa izango da, hain zuzen, kalte edo galerok ekarritako ondorioei aurre egitea, eta, beraz, Bizkaiko Foru Aldundia kontu horren inguruko erantzukizun guztietatik aske geratuko da, betiere udalak kontratista adjudikaziodunari erantzukizunik jasanarazteko aukera baztertu gabe.

Obrak jaso ondoren, eraikuntzako akats ezkutuengatik hondatzen badira, Ortuellako Udalak zuzeneko erantzukizuna izango du Bizkaiko Foru Aldundiarekin, eta hitzarmen honen bidez egindako ekarpena itzuli beharko dio, betiere udalak kontratista adjudikaziodunari kalte eta galerarik jasanarazteko aukera baztertu gabe.

### Jarraipen eta Kontrol Batzordea

1.- Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzordea eratuko da, Ortuellako Udaleko ordezkari batek eta Bizkaiko Foru Aldundi Txit Goreneko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Saileko beste bi ordezkari osaturik. Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Foru Saileko ordezkarietako bat batzordeko burua izango da (sailak berak izendaturik).

2.- Batzordearen eginkizunak hauek izango dira: hitzarmena interpretatu eta betetzean sortzen diren arazo guztiak ebaztea, hitzarmenean aurreikusitako jarduketan burutzapen normalaren jarraipena egitea, eta alderdi biak informaturik egoteko nahiz bion konpromisoak behar bezala betetzeko aukera ematen duten irizpide eta moduak zehaztea.

3.- Hitzarmenaren indarraldian zehar, alderdietako edozeinen proposamenez, lanak behar bezala joan daitezen beharrezkoa den guztietan bilduko da batzordea, aldez aurretik biltzeko deialdia eginik.

4.- Batzordea baliozkotasunez eratu ahal izateko quoruma batzordekideen gehiengoa izango da, eta batzordearen erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira.

5.- Jarraipen Batzordeari buruzko hitzarmenean beren-beregi xedatu ez denari dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen aratiko tituloko II. ataleko 3. Zenbakian jasotako kide anitzeko organoen

consecuencia derivada de los daños y/o perjuicios que se pudiera ocasionar a terceros, a la Diputación Foral de Bizkaia o al propio Ayuntamiento con motivo de la ejecución de las obras, quedando por tanto la Diputación Foral de Bizkaia, exonerada de toda responsabilidad al respecto y sin perjuicio en todo caso de que el Ayuntamiento pueda repercutir contra el contratista adjudicatario.

Si una vez recibidas las obras, se arruinan con posterioridad por vicios ocultos de la construcción responderá directamente el Ayuntamiento de Ortuella ante la Diputación Foral de Bizkaia, debiendo reintegrarle la aportación realizada en virtud del presente Convenio, sin perjuicio de que el Ayuntamiento pueda repercutir contra el contratista adjudicatario por daños y perjuicios.

### Comisión de Seguimiento y Control

1.- Se constituirá una Comisión de Seguimiento del presente Convenio, integrada por un representante del Ayuntamiento de Ortuella y otros dos representantes del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Excma. Diputación Foral de Bizkaia, ostentando uno de los representantes del Departamento Foral la Presidencia de la Comisión (a nombramiento por el Departamento).

2.- Sus funciones serán las de resolver cuantas cuestiones pueda plantear la interpretación y el cumplimiento del presente Convenio, así como las de llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el mismo, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

3.- Durante la vigencia del Convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la Comisión se reunirá previa convocatoria siempre que lo requiera la buena marcha de los trabajos.

4.- El quórum necesario para la válida constitución de la Comisión será el de mayoría de sus miembros, adoptándose sus acuerdos por mayoría de votos.

5.- En lo no previsto expresamente en el convenio sobre la Comisión de Seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la Sección 3ª del Capítulo II. del Título Preliminar de la Ley 40/2015 de 1 de octubre de Régimen Jurídico

araubidea aplikatuko da

del Sector Público.

### **Alderdi bakoitzak egin beharreko jarduketak justifikatzeko eta kontrolatzeko epea eta modua**

### **Plazo y forma de Justificación y control de las actuaciones a realizar por cada una de las partes**

1. Hitzarmenaren xede den jarduketaren proiektua aurkeztu beharko da.

1. Se deberá presentar proyecto de la actuación objeto del convenio.

2.- Obra burutzeko egiten diren izapide guztien garapen eta burutzapenaren berri eman beharko dio Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari, hauek eragingorrak izango diren momentuan, batez ere obraren adjudikazioari, hasierari, ziurtagiri guztien kopia baten bidalketari, amaierari, obra-jasoketa edo harrerari eta likidazioari dagokienez.

2. Se deberá comunicar al Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial el desarrollo y ejecución de los trámites que se realicen en ejecución de la obra en el momento en el que éstos sean efectivos, especialmente de la adjudicación, inicio, remisión de una copia de todas las certificaciones, finalización, recepción y liquidación de la obra.

Obrak adjudikatzeko gutxi gorabeherako data 2024ko abuztua izango da, obrak hasteko data 2024ko urria izango da eta amaitzekoa 2025ko urria izango da.

Las fechas previstas de forma estimativa para la adjudicación de las obras será agosto de 2024 el inicio de las mismas octubre de 2024 y su finalización octubre de 2025

3.- Obra hasi aurretik, obraren hasiera jakinarazi beharko zaio jarraipen batzordeari eta Kudeaketa Administratiboan eta Hitzarturiko Inbertsioak Bideratzeko Atalari.

3.- Antes del comienzo de la obra se deberá comunicar su inicio a la Comisión de Seguimiento y a la Sección de Gestión Administrativa e Inversiones Convenidas.

### **5.- EMATE AKTA**

### **5.- ACTA DE ENTREGA**

Hitzarmen hau sinatzeko egintza berean emate-akta ere sinatzen du Ortuellako Udalak. Izan ere, akta horren bidez BI-3791 foru errepidearen 15+1070 p.k.tik 17+000 k.p.rainoko tartearan eta lurren titulartasunaren aldaketa formalizatzen da, aurrerantzean titularra udala izan dadin, hitzarmen honetan jasotako III. eranskinean xedatutakoaren arabera.

En el mismo acto de firma del presente Convenio el Ayuntamiento de Ortuella firma el Acta de entrega por la cual se formaliza el cambio de titularidad del tramo de la carretera foral BI-3791 del p.k. 15+1070 al p.k. 17+000 y terrenos que pasará a ser de titularidad municipal, conforme a lo dispuesto en el Anexo III que se adjunta al presente convenio.

Goian aipaturiko lagapena gorabehera, funtzionaltasuna, zerbitzu publikoa edota udalez gaindiko interes publikoko arrazoiengatik errepideen ustiapen egokia babesteko beharrezkotzat hartzen dituen egintza edo neurri guztiak eman edo hartu ahal izango ditu Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak edozein kasutan eta salbuespen modura, eta egintza edo neurriok berehala izango dira betearazi beharrekoak. Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak, gainera, berehala eman beharko dio Ortuellako Udalarari halako egintza edo neurrien berri, jakitun egon dadin.

No obstante la anterior cesión el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial podrá dictar en todo caso y con carácter excepcional los actos o medidas que juzgue necesarios, los cuales serán inmediatamente ejecutivos, en defensa de la funcionalidad, del servicio público y de la correcta explotación de las carreteras por razones de interés público supramunicipal, debiendo notificar de modo inmediato al Ayuntamiento de Ortuella tales actos o medidas para su debido conocimiento.

### **6.- HITZARMENA ALDATZEKO ARAUBIDEA**

### **6.- RÉGIMEN DE MODIFICACIÓN DEL CONVENIO**

Sinatzaileen ahobatezko erabakia beharko da

La modificación del convenio requerirá acuerdo

hitzarmena aldatzeko.

## 7.- HITZARMENAREN INDARRALDIA

1.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuz, lankidetzaz hitzarmen hau sinatuko den egunean jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da hitzarmenaren xede diren obrak jaso eta likidatu arte. Hala ere, lege horren 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, egiteko epea ez da lau urtetik gorakoa izango, eta, aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea

## 8. HITZARMENENAK AZKENTZEA

1.- Honako hitzarmen hau oso-osorik betetzeagatik edota suntsiarazpenagatik azkenduko da.

2.- Edozein arrazoi dela medio hitzarmen honen xedean zehazten diren obrak ez bada 2025-2026 epealdian hasten, hitzarmen hau erabateko zuzenbidez berez ebatzitzat joko da. Hitzarmena berez ebatzi egiten bada, Ortuellako Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari beronek hitzarmena burutzeko ordaindutako zenbatekoa itzuli beharko dio. Itzulketa hori egiteko hilabeteko epea dago hitzarmena amaitzen denetik zenbatuta. Epe horretan ordaindu ez bada, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekonomia- eta -finantzaren arloko indarreko legeriaren arabera berandutza- interesak aplikatuko dira.

3.- Ortuellako Udalak ezarriko balu ezinezko egiten zaiola honako hitzarmen honek ezarri dituen jarduketak burutzea, bere ekimenari jarraiki aukera edukiko du Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpenaren xede den zenbatekoa osorik edo, hala denean, zati baten itzultzeko: horrek ez du esan nahi honako hitzarmen hau beteko ez denik, ezta emaitzako ondorioz egongo ez denik ere.

4.- Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak:

- Hitzarmenaren indarraldia amaitzeagatik, hura luzatzeko erabakia hartu gabe.
- Alderdi sinatzaileek hitzarmena azkentzeko ahobatezko erabakia hartzeagatik.

unánime de las partes firmantes.

## 7.- PLAZO DE VIGENCIA DEL CONVENIO

1.- En aplicación de la Ley 40/2015 de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público, el presente convenio de colaboración entrará en vigor el día de su firma, y estará vigente hasta la recepción y liquidación de las obras objeto del mismo. No obstante, de conformidad con el artículo 49 de la citada Ley, su duración no podrá ser superior a 4 años, pudiendo en cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto, acordar unánimemente los firmantes del convenio su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

## 8.- EXTINCIÓN DE LOS CONVENIOS

1.- El presente convenio se extinguirá por su íntegro cumplimiento o por resolución.

2.- En el supuesto de que por cualquier causa las obras identificadas en el objeto del presente convenio no se inicien en el periodo 2025-2026 se entenderá automáticamente resuelto de pleno derecho el presente Convenio. En el caso que tenga lugar dicha resolución automática, el Ayuntamiento de Ortuella deberá reintegrar a la Diputación Foral de Bizkaia los abonos por ésta realizados en ejecución del mismo, esta devolución se llevará a cabo en plazo de un mes resuelto el convenio, si el abono no se resuelve en este plazo, se aplicarán intereses de demora de acuerdo a la legislación económico-financiera vigente en la Diputación Foral de Bizkaia.

3.- Si el Ayuntamiento de Ortuella contemplara la imposibilidad manifiesta y terminante de llevar a cabo las actuaciones dispuestas en el presente convenio, podrá efectuar por propia iniciativa la devolución total o parcial, en su caso, de la cantidad objeto de aportación por la Diputación Foral de Bizkaia, sin que ello suponga incumplimiento alguno del presente convenio, ni de las consecuencias que pudieran derivarse del mismo.

4.- Serán causas resolutorias del presente convenio:

- El transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- El acuerdo unánime de todos los firmantes.



- Alderdi sinatzaileetakoren batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik.
- Deuseztasuna adierazteko epaileen erabakia emateagatik.
- Legeetan aurrez ikusitako beste edozein arrazoiengatik.
- El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes.
- Por decisión judicial declaratoria de nulidad.
- Por cualquier otra causa prevista en las leyes

## 9.- HITZARMENAK SUNTSIARAZTEAREN ONDORIOAK

Hitzarmena bete eta/edo suntsiarazi ondoren:

1.- Baldin eta obra-kontratuaren likidazioaren zenbatekoa aurreko bigarren klausulan adierazi den kopurua baino txikiagoa bada, zenbateko hori itzuli egin beharko dio Udalak Bizkaiko Foru Ogasunari. eta horretarako hilabeteko epea izango du likidazioa onartzen denetik; itzuli beharreko kopuruan ez da interesik ordaindu behar izango.

Nolanahi ere, hilabeteko epean soberakoa itzuli ez bada, momentu horretatik aurrera hilabeteko epea ere egongo da itzultzeko; aipatutako gastuen itzulketan aplikagarria den Bizkaiko Foru Aldundian berandutza-interesa indarrean dagoen ekonomia-eta -finantza legearen arabera da.

2.- Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmen honen ondorioz bereganatzen duen konpromiso ekonomiko bakarra goiko bigarren klausulan adierazitakoa da. Kopuru hori ordaindurik amaitu egiten dira hitzarmenak aldundiari dakartzkion betebeharrak guztiak, eta, beraz, Ortuellako Udalaren kontura egingo da, oso-osorik, udal horrek obraren likidazioa gauzatu arte egin behar duen beste edozein ordainketa gehigarri, likidazioa bera ere barne delarik. Eta hori horrela da Bizkaiko Foru Aldundiko eskumendun organoaren administrazioko aurretiazko onespena gorabehera. Ondore horietarako Ortuellako Udalak honako hitzarmen honetan ezarri diren inguruabarren aldaketa ekarriko duten gorabehera guztien berri emango du, hau da, hitzarmenaren xedean eragina izango dutenak, zertarako-eta arestian adierazi den organoak bere ustez egokia dena ebazteko hitzarmenean ezarri diren araubide eta ondorioei dagokienez.

Aurreko paragrafoan ezartzen den arauarekin bat

## 9.- EFECTOS DE LA RESOLUCIÓN DE LOS CONVENIOS

Una vez cumplido y/o resuelto el convenio:

1.- En el supuesto de que la liquidación del contrato de obras fuese de importe inferior a la cantidad expresada en la cláusula dos precedente, dicho importe deberá ser reintegrado por el Ayuntamiento a la Hacienda Foral de Bizkaia, en el plazo de un mes desde que se apruebe la liquidación, esta devolución no conllevará abono de intereses.

No obstante transcurrido el plazo de un mes sin que se haya producido el reintegro del sobrante, se deberá de abonar en el plazo también de un mes desde ese momento, el interés de demora aplicable al citado reintegro de acuerdo a la legislación económico-financiera en vigor en la Diputación Foral de Bizkaia..

2.- El único compromiso económico que asume la Diputación Foral de Bizkaia en virtud del presente Convenio es el expresado en el apartado número dos precedente. Con su abono quedan extinguidas todas las obligaciones que del mismo se derivan para la Diputación y por tanto cualquier pago adicional que fuere necesario realizar por el Ayuntamiento de Ortuella hasta la liquidación de la obra, ésta incluida, correrá a cargo exclusivamente de dicho Ayuntamiento, sin perjuicio de su previa aprobación administrativa por el órgano competente de la Diputación Foral de Bizkaia. A estos efectos, el Ayuntamiento de Ortuella deberá comunicar cualquier incidencia que constituya una alteración de las circunstancias previstas en el presente convenio y que afecten al objeto del mismo con el fin de que el mencionado órgano pueda disponer lo que considere procedente respecto al régimen y efectos de la aportación contemplada en el mismo.

De acuerdo con la norma establecida en el párrafo

etorri, eta bera aplikatuz, obrak lizitatu edota burutzean eta behin betiko likidazioa egin arte (bera barne) aurrekontuaren zenbatekoa gehitzen bada edo edozein kontzepturen zioz ondorio ekonomikoak ekar ditzakeen gorabeheraren bat gertatzen bada (esaterako, lizitazio-oinarri handiagoa duen deialdi berria egitea aurrekoa hutsik gelditu delako; kontratuan aldaketak egitea; obra osagarriak onestea; likidazioan gehiegikeriak egotea; prezioak berrikustea dagokion kontratuan aurreikusitako formula gorabehera; zerga-tasak aldatzea, e.a.), Ortuellako Udalaren kontrurako izango da. Nolanahi ere, lehenbizi Bizkaiko Foru Aldundiko eskudun organoak onetsi egin beharko du, hala denean, eta baita betearazi diren lanetan gerta daitezkeen aldaketei dagokienez ere.

## 10.- ALDERDIEN LAGUNTZEKO BETEBEHARRA

Ortuellako Udalak konpromisoa hartzen du Bizkaiko Foru Aldundiari laguntzeko Aldundiak egin litzakeen kontrol-eginkizunetan.

## 11.-DATU PERTSONALEN BABESA

Alderdi sinatzaileek honako hauetan ezarritakoa betetzea hitzartzen dute: pertsona fisikoen babesari buruzko eta datu pertsonalak tratatzearen eta datu horien zirkulazio librearen alorreko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 679/2016 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, eta eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

## 12.- GARDENTASUNA

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak Hitzarmen hau onetsi, Bizkaiko gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 3.3 artikuluaekin bat 9.1.e). artikuluan ezarritakoaren arabera, BFaren Gardentasunaren Atarian argitaratuko da

## 13.- EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

anterior, y en aplicación de la misma, resulta que cualquier incremento presupuestario o cualquier incidencia con repercusión económica que se produzca por cualquier concepto durante la licitación y/o ejecución de las obras hasta su liquidación definitiva, ésta incluida (tales como realización de nueva convocatoria con tipo de licitación superior por haber quedado desierta la anterior; modificaciones contractuales; aprobación de obras complementarias; exceso en las liquidaciones; revisiones de precios sea cual fuere la formula que se hubiere previsto en el correspondiente contrato; modificaciones de tipos impositivos, etc.) correrá a cargo exclusivamente del Ayuntamiento de Ortuella, sin perjuicio de su previa aprobación administrativa por el órgano competente de la Diputación Foral de Bizkaia por medio del trámite correspondiente, en su caso, así como las variaciones que haya podido sufrir el mismo con ocasión de los trabajos realizados.

## 10.- OBLIGACIÓN DE COLABORACIÓN DE LAS PARTES

El Ayuntamiento de Ortuella se compromete a colaborar en las funciones de control que a tales efectos pudiera llevar a cabo la Diputación Foral de Bizkaia.

## 11.-PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

Las partes firmantes se comprometen a cumplir con lo dispuesto en el Reglamento 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

## 12.- TRANSPARENCIA

Una vez aprobado el presente convenio por el Consejo de Gobierno de Diputación Foral de Bizkaia, conforme con lo dispuesto en el artículo 9.1.e) en relación con el artículo 3.3 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, la Diputación Foral de Bizkaia el mismo será publicado en el Portal de Transparencia de DFB

## 13- IGUALDAD MUJERES Y HOMBRES

Esku hartzen duten alderdiek genero ikuspegia txertatuko dute hitzarmen honen harira dagozkien jarduketa guztietan, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoari jarraikiz

#### 14. ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmenak administrazio-izaera du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen atariko tituluaren VI. kapituluaren xedatzen denaren arabera.

Hitzarmen honek bete egiten ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren 46 artikuluan ezarritako baldintzak. Foru-dekretu horrek, izan ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten du, zeinak garatzen baitu Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina.

Hitzarmenaren garapenean eta betearazpenean alderdien artean auziren bat sortzen bada, eta laugarren klausulan aipatutako jarraipen-batzordeak ezin badu konpondu, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren barruan ebatziko dira, jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen xedatutakoarekin bat etorritik.

Hitzarmen honetan aurrez ikusten ez diren gai guztietan hauek aplikatu beharko dira: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina onartzen duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, eta aplikatu beharreko gainerako xedapen guztiak.

Eta aurreko guztia onartu eta berarekin ados direla adierazteko, esku-hartzaileek hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, hasieran adierazitako lekuan eta datan.

**ORTUELLAKO ALKATE -UDALBURUA**

**EL ALCALDE-PRESIDENTE DEL  
AYUNTAMIENTO DE ORTUELLA**

Las partes intervinientes incluirán la perspectiva de género en todas las actuaciones que les corresponda realizar en relación con el presente convenio, conforme con lo establecido en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres.

#### 14.- RÉGIMEN JURÍDICO

El presente convenio es de naturaleza administrativa conforme a lo dispuesto en el Capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público.

El presente convenio cumple con los requisitos establecidos en el art. 46 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del texto refundido de la Norma Foral General Presupuestaria.

Las cuestiones litigiosas que surjan entre las partes durante el desarrollo y ejecución del convenio y que no puedan ser resueltas en la Comisión de Seguimiento y Control prevista en la Cláusula Cuarta se someterán a la jurisdicción contencioso-administrativa, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contenciosos-Administrativa.

Para todo lo no previsto en el presente convenio será de aplicación la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, el Decreto Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral General Presupuestaria, y su Reglamento, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

Y en prueba de conformidad y aceptación de cuanto antecede, los intervinientes firman el presente documento por duplicado ejemplar en el lugar y fecha expresados en su encabezamiento.

**AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE  
GARAPENERAKO SAILEKO FORU DIPUTATUA  
DIPUTADO FORAL DEL DEPARTAMENTO DE  
INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO  
TERRITORIAL**

Sin.Fdo.: Saulo Nebreda Trevejo

Sin./Fdo.: Imanol Pradales Gil

## I. ERANSKINA - ANEXO I

### OBRAK DESKRIBATZEKO MEMORIA - MEMORIA DESCRIPTIVA DE LAS OBRAS

Funtsean, honako lan hauek egingo dira:

- Espaloia eraikitzea Errege Bideraino.
- Espaloia hegalean zubian eraikitzea.
- Oinezkoentzako bi pasabide altxatuak eraikitzea.
- Zoladuraren konponketa puntualak.
- Seinaleztapen bertikala eta seinaleztapen horizontaleko bide-marrak.

Los trabajos consistirán fundamentalmente en:

- Construcción de acera hasta el Camino Real.
- Construcción de acera en voladizo en puente.
- Construcción de dos pasos de peatones elevados.
- Reparaciones puntuales del pavimento.
- Señalización vertical y marcas viales de señalización horizontal.


II. ERANSKINA - ANEXO II  
AURREKONTUA - PRESUPUESTO

PROYECTO: ADECUACIÓN DE LA CARRETERA BI-3791

MEDICIONES Y PRESUPUESTOS

N	CONCEPTO	MEDICION	PRECIO	IMPORTE
1	M2 CONSTRUCCIÓN DE ACERA.	90,00	540,00	48.600,00
2	ML CONSTRUCCIÓN DE ACERA EN VOLADIZO.	10,00	4.500,00	45.000,00
3	UD CONSTRUCCIÓN DE PASO DE PEATONES ELEVADO.	2,00	4.500,00	9.000,00
4	PA PINTADO DE SEÑALIZACIÓN HORIZONTAL.	1,00	15.000,00	15.000,00
5	M2 REPARACIONES VARIAS DE ASFALTADO.	500,00	60,00	30.000,00
6	UD SEÑALES VERTICALES DE INDICACIÓN.	7,00	500,00	3.500,00
<b>TOTAL PRESUPUESTO EJECUCION MATERIAL</b>				<b>151.100,00</b>
19 % Gastos Generales y Beneficio Industrial				28.709,00
Total Presupuesto Ejecución Contrata				179.809,00
IVA 21%				<u>37.759,89</u>
<b>TOTAL PRESUPUESTO DE OBRA DE LA ADECUACIÓN DE CARRETERA</b>				<b>217.568,89</b>

III. ERANSKINA - ANEXO III  
LAGAPENA - CESIÓN



	<b>BIZKAIKO ERREPIDEEN GIS GIS DE CARRETERAS DE BIZKAIA</b>	Titulo/Título: <b>Cesión BI-3791 / ORTUELLA</b>	Data/Fecha: <b>31/10/2023</b>	Eskala/Escala: <b>1:2.500</b> 
--	-----------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------	----------------------------------	-----------------------------------